

Freak Festival

Europa Biltzar Jauregia
2023ko ekainaren 17an eta 18an
Doako jarduera



Valinor Elkartearen eta **Vital Fundazioaren** eskutik, ekitaldiak proposamen 'friki' zabala eskainiko du, inklusioaren, doakotasunaren eta tokikoa sustatzeko konpromisoaren aldeko apustua eginez. Jarduerak proposamen zabala eskainiko du, hala nola mahai jokoak, *cosplay* lehiaketak, zinema, literatura, zuzeneko rol-jokoak, eskulanak edo ikuskizunak, besteak beste

Informazioa

Freak Festivalek jarduera ludiko eta kulturalen proposamen zabala eskainiko du, iparraldean entretenimendu esperientzia paregabeaz gozatzeko.

Aldi berean, jaialdiaren helburuen artean honako hauek nabarmentzen dira: jendeari, bereziki gazteeneri, aisialdi alternatiboa proposatzea, zaletasun berrien aurkikuntza sustatzea eta tokiko garapenean laguntzea, gure lurraldeko sortzaile eta saltokiei ikusgarritasuna ematen dieten espazioak eta plataformak erabiliz.

Antzeko beste ekitaldi batzuetan ez bezala, Freak Festivalen erakargarritasuna bizipen paregabeen eskaintza da, eta, gainera, kultura alternatiboaren berezko zaletasunak dohainik ezagutzeko edo garatzeko aukera ematen dute.

Ordutegia, jarduerak eta informazio gehiago haien [web orrian](#)